

5.KANALAK

Gure zerbitzuak bezeroengana helarazteko propaganda egingo dugu kaleetan kartelak itsasten. Horretarako, komunikazio-kanalak erabiliko ditugu, irrati eta horrelako komunikabideen bidez gure kiroldegia existitzen dela jendeari helarazteko.

Telebistan iragarkiren bat prestatuko dugu, eta interneten web orrialdea jarriko dugu. Web orrialdeak aukera asko emango ditu, adibidez: bertatik informatzea non kokatuta dagoen kiroldegia, bertako prezioak jakinaraztea, zer gauza dauden... Gainera, email bat ere edukiko dugu, eta bertara edozein erreklamazio edota galdera bidali daitezke. Guk, ahal dugun azkarren erantzungo dugu, eta gauzak argitzen saiatuko gara arazorik ez egoteko.

Irrati, aldizkari eta egunkarietan ere gure kiroldegiari buruzko informazioa aipatzea eskatuko dugu, horrela jendea kontura dadin eta etortzen hasten diren. Gero, jendea nola jabetu den kiroldegiataz galdetuko dugu, eta erantzunen arabera, informazioa bertara murriztuko dugu.